

# Qatar 2022, eliteko kirolaren iparrorratza

 JON TORNER ZABALA

**A**bian da gizonezkoen Munduko Futbol Txapelketa, Qatarren. Us- telkeria zantzuak, estadioak eta bestelako azpiegiturak eraikitzen aritu diren milaka obreroren heriotza, emakumeen eta LGTBI kolektiboaren kontrako jazarpena, ingurumen inpaktua, zentsura, futbol-egutegiaren alterazioa... Dena ez da urre eliteko futboleant.

Sobera motibo daude Munduko Koparen aurka agertu eta, oro har, eliteko kirolak urteotan hautatu duen norabidea salatzen. 2010eko abenduaren 2an iragarri zuen FIFAk 2022ko edizioa Qatarren jokatu zela, eta ordutik -baita lehenagotik ere- lotsarik gabe erakutsi du zein bide hobetsi duen.

2008an Arabiar Emirerri Batuetako ADUG inbertsio funtsak Manchester City futbol taldea erosi zuen; 2011n Qatarreko QSI-k Paris Saint-Germain, Espainia eta Italiako superkopak Arabiar Emirerri Batuetan jokatu dira; Qatar Airways kon-

painiak babestu ditu PSG, Bartzelona eta Municheko Bayern bezalako klubak. Eta futboletik harago, 2016-17tik Bahrein eta UAE Emirates txirindulari taldeak maila gorenean ari dira, 2022an Liv Golf zirkuitu profesionala sortu du Saudi Arabiako inbertsio funts publikoak, Nasser Al Khe-laifi enpresariak -PSG eta beIN Sports telebista katearen jabeak- Premier Padel zirkuitua sortu du, 2020tik Paris Dakar auto lasterketa egiten da Saudi Arabian, Formula1-eko karrerak, Moto GP zirkuituak... Nahi beste luza gintezke.

Auto eta moto konpetizioak adierazle ona dira, jabetzeko zein ekonomiak bilatzen duen kirolaren bidez eragin ahalmena handitu eta mapa geopolitikoan posizioamendu hobea lortzea. Eta urteotan, ikusten ari gara petrodolarrek direla erregai nagusietakoa, Saudi Aramco eta Qatar Petroleum bezalako multinazionalen irabazietatik eratorria. Honek guztiak erakusten du egiaz zein partida jokatu-

den egunotan Qatarren, Ukrainako krisia dela-eta gasaren merkatuan jokalaria garrantzitsuena bilakatu den herrialdean. Eta etorriko direnak: 2029ko Asiako Neguko Jokoak Qatarren egingo dira, eta jada iragarri du etorkizunean Neguko Joko Olinpikoak hartu nahi dituela.

Aipatutakoek gizarte eragile ugariaren protestak eragin dituzte, baita kirolari batzuen eta futbol klubetako zaleena ere, eta irudipena daukat, agian, Qatarreko Munduko Koparen aurkako mugimenduaren oinarrian, diktadura batean ospatzen diren kirolak hartu duen norabidearen gaineko haserrea dagoela. "Kirola ezin da politizatu", adierazi zuen Frantziako presidentea Emmanuel Macronek pasa den astean, Munduko Kopaz galdetu ziotenean. Herritarrak baboak direla uste dute, futbolaren aitzakiarekin etengabe sartuko dizkigutela hankapetik golak. Egia da horretarako motiboak eman dizkiegula, baina... ●

## Aurrekaririk gabeko heriotzak Qatarren

 = Hildako langileak

### Pekin

2008ko Olinpiadak



### Vancouver

2010eko Olinpiadak



### Hego Afrika

2010eko Mundu Kopa



### Londres

2012ko Olinpiadak



### Brasil

2014ko Mundu Kopa



### Sotxi

2014ko Olinpiadak



### Qatar

2022ko Mundu Kopa (oraingoz)



Iturria: The Guardian